

NAFARROAKO GOBERNUA

GARAPEN EKONOMIKOA

ESKUBIDE SOZIALAK

OGASUNA ETA FINANTZA POLITIKA

LEHENDAKARITZA, FUNTZIO  
PUBLIKOA, BARNEA ETA JUSTIZIAHERRITARREKIKO ETA  
ERAKUNDEEKIKO HARREMANAK

HEZKUNTZA

OSASUNA

KULTURA, KIROLA ETA GAZTERIA

LANDA GARAPENA, INGURUMENA  
ETA TOKI ADMINISTRAZIOA

SEGURTASUNA ETA LARRIALDIAK

## 290.000 euroko laguntzak eman dira euskara hedabideetan sustatzeko

*Hala, 2011. urtetik deialdirik egin gabeko diru-laguntzen lerroa berreskuratu da*

Osteguna, 2016.eko uztailak 28

Euskarabidea-Euskararen Nafar Institutuko zuzendari kudeatzaileak 2016. urterako prentsa idatzi, irrati eta sareko hedabideetarako [laguntza-deialdia](#) ebatzi du, 290.000 euro, guztira. Laguntzen zenbatekoak 757,84 eta 56.837,67 euro artean daude.

Zehatzago, kopuru handiena euskara hutsean argitaratutako tokiko aldizkarietarako da, 120.000 euro, eta hamar argitalpenek jasoko dute diru-laguntza.

Jarraian, euskaraz emititzen duten irratiek jaso dituzte laguntza gehien: 58.769,45 euro banatuko dira Euskalerrria Irratiaren (Iruñerria) eta Xorroxin Irratiaren (Baztan-Bidasoa) artean; eta 36.230,55 euro jasoko dute Karrape (Leitza), Esan-erran (Ultzama), Aralar (Lekunberri) eta Belexeko (Etxarri-Aranatz) udal-irratiek.

Azkenik, euskara sustatzeagatiko laguntza jasoko dute, halaber, Berria eta Diario de Noticias egunkariak (20.000 euro bakoitzak) eta euskaldunak ez diren Periódico Universitario, Mendixut eta Merindad de Tafalla aldizkariak (hiru aldizkarien artean 20.000 banatzen dira); zazpi hedabide digitalek, berriz, guztira beste 15.000 euro jasoko dute beraien jarraitzaileen artean euskara sustatzeagatik.

Euskarabideko deialdiak ez du Nafarroako telebistetarako laguntzak aurreikusten. Telebista horiek Herritarrekiko eta Erakundeekiko Harremanetako Departamentuak ere kudeatutako [ikus-entzunezko ekoizpenerako laguntza](#)-deialdian parte hartu dezakete, eta haren oinarrietan foru-telebistetan euskara sustatzeko berariazko laguntzak jasotzen dira.

Laguntza horien deialdirik ez da egin 2011. urtetik. Azken legealdian egindako parentesiaren ondoren, orain berreskuratu egin dira.